



## ELZ PROGRAMA OSPITALE-JARRAIPENA ETXEZ ETXE

### Zer da ELZ programa eta nori zuzenduta dago?

ELZ Etxeko Laguntza Zerbitzuaren inzialak dira. Izen hori ematen zaio Etxeko Ospitalizazio Zerbitzutik (ETXOSP) honako BI egoera hauek dituzten pazienteei eskaintzen zaien jarraipen-programa partikular bati:

1. Honako hauek dituzten pertsonak: a) egoera aurreratuan dauden gaixotasun kronikoak edo b) karga sintomatiko handia duten eritasun neoplasikoak. Bi kasuetan, gainbegiratze kliniko eta tratamendu-aldaketa ohikoak behar dituzte.
2. Dagozkien espezialistek ebaluatzeko kontsultara joateko zailtasunak dituzten pertsonak.

Programan sartzen diren pazienteak ETXOSP medikuek aukeratzen dituzte.

ELZren helburua da paziente horien bilakaera hobeto gainbegiratzea, gerta daitezkeen desorekatzeak saihestu, goiz detektatu edo hasieratik tratatzen hasteko, eta, horrela, Larrialdietako Zerbitzura eta ospitaleratzeetara joateko maiztasuna murrizteko.

### Zer arreta eskaintzen du ELZ programak?

- A. Ohiko arreta programatua telefonoz edo aurrez aurre etxean.
- B. Ordutegi mugatu batean programatutako bisiten aurretik sortutako okerragotze-egoerentarako arreta erreaktiboa (ikusi beherago harremanentarako ordutegiak).
- C. Etxeko ospitalizazioko erregimenean zuzenean ospitaleratzeoko aukera ematea, hala eskatzen duten okertze-egoeretan, solairuko ospitaleratzea saihesteko.

### Nork ematen du arreta?

ELZn artatutako pazienteek ETXOSPko ohiko mediku bat izango dute atxikita, eta mediku horrek eta ETXOSPko erizainek telefonoz eta aurrez aurre egindako kontsultak jasoko dituzte.

#### TELEFONO-ZENBAKIA ETA HARREMANENTARAKO ORDUTEGIA

LANEGUNETAN, 08:00etatik 15:00etara

TELEFONO-ZENBAKIA: 945-007276

ADIERAZI ETXEKO OSPITALEKO JARRAIPEN-PROGRAMAKO PAZIENTEA DELA

Ordutegi horretatik kanpo, egoerak itzaroteko aukerarik ematen ez badu, kontsultatu 945244444 telefono-zenbakian.